Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco - Sarrera/Entrada - 2019/05/03 - 11:52 - Zk./Núm.: 2504

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2019 MAI. MAY. -3
SARRERA/ ENTRADA 2504 IRTEERA/ SALIDA

ehbildu

zerbitzua cuskaraz

EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzeta EH Bildu taldeko legebiltzarkide eta bozeramaileordeak, ondorengo ekimena aurkezten du:

**Gorte Nagusien aurreko Ekimen Legegilea, 10/1995, azaroak 23ko Lege organikoa, Zigor Kodearen 143.4. artikulua aldatzeari buruzkoa.**

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 229. 230. eta 231. artikuluek emaniko eskumenen baitan Diputatuen Kongresuko Mahaiari helarazteko.

ZIOA

Ekimen legegile honen helburua da, pertsonek heriotza ona ziurtatzeko kalitatezko bizitza gauzatzeko duten eskubide berbera izatea; beraz, pertsonaren erabaki ahalmena, autonomia bizitza osoan zehar bezala, euren bizitzari amaiera ematerakoan lehenesteko. Horretarako gaur egun, heriotza ona ziurtatzeko eskaintzen diren osasun baliabideei, baliabide juridikoak eskainiz, pertsonaren erabaki ahalmena bizitzari amaiera emateko unean erdigunean kokatzeko, horrela bueltarik ez duen sufrimenduari, fisiko zein psikologikoari amaiera emanez. Laburbilduz, pertsonaren borondatearen errespetua blindatzea du helburu ekimen legegile honek, eta ondorioz pertsonaren

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Rebeka Ubera Aranzeta Portavoz Suplente y Parlamentaria del Grupo EH Bildu, presenta la siguiente iniciativa:

**Iniciativa Legislativa ante Cortes Generales, modificando el artículo 143.4 de la Ley Orgánica 10/1995 del Código Penal.**

Según lo establecido en el artículo 28 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y en los artículos 229, 230 y 231 del Reglamento del Parlamento Vasco se remite la siguiente iniciativa legislativa de ley a la Mesa del Congreso de los Diputados.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El objetivo de esta iniciativa legislativa es que las personas tengan el mismo derecho a una muerte digna que a desarrollar una vida de calidad; es decir priorizar la capacidad de decisión de las personas, tal como han gozado a lo largo de toda la vida, también en el momento de poner fin a la misma. Para ello, a los recursos sanitarios que se ofrecen actualmente para asegurar una buena muerte, habría que añadir recursos jurídicos para situar la capacidad de decisión de dar fin a la propia vida en el centro, para hacer posible poner punto final al sufrimiento irreversible sea físico o psicológico. En definitiva, esta iniciativa legislativa pretende blindar el respeto a la voluntad de la persona, asegurando con

Becerro de Bengoa 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945.004116
www.ehbildu.eus/instituzioak/gasteizko-legebiltzarra
@ehbildu_legebil

eskubideak eta duintasuna bermatuz, berme guztiekin.

Gogoratu beharra dago hamarkadetan eztabaidagai izan dela gizartean, deitu eutanasia, deitu suizidio lagundua edo amaierako sedazioa delakoa; baina azken urteetan gizartean emaniko aldaketak izan demografikoak, izan bizi esperantzari atxikirikoak, edo eta gizartearen bizimolde zein giza eskubide, eskubide sozial edo eta printzipio demokratikoen garapenagatik, inoiz baino agerikoagoa eta jarraitua izan da gizartearen aldetik heriotza ona bermatzeko eskaria, tokian tokiko erakunde eta agintariei. Ondorioz, indarrean dauden marko juridikoen aldaketa beharra agerian geratu da. Horren adibide ditugu, azkeneko kasu batzuk, Tellaetxea familiak Gorteetan aurkezturiko 182.000 sinadurak edo eta Hernandez eta Carrasco jaun andreek pairatutako egoera, berme juridiko gabeziagatik itzulerarik ez zuen urteetako sufrimenduarenak. Beraz, inor behartzen ez duen baina pertsonen eskubideetan sakontzeko, itzulerarik ez duen sufrimenduari aurre egiteko edo eta sendaezinak diren gaixotasun progresiboen aurrean dependentzia egoeretara iristeak suposatzen duen sufrimendu jasan ezinei erantzuteko, legezko aldaketak beharrezkoak dira herritarrei duintasuna bermatu eta indefentsio egoerarekin bukatzeko. Gaixorik dauden pertsonek eskubidea izan dezaten euren borondatea errespetatuz, aurretiazko aholkularitza medikoarekin, eta egoeraren arabera, alternatiba terapeutiko desberdinetara

todas las garantías los derechos y la dignidad de la persona.

Hay que recordar que este tema ha sido objeto de debate en la sociedad durante décadas llámesele eutanasia, suicidio asistido o la sedación final. Sin embargo, los cambios sociales producidos en los últimos años, sean los relacionados con la demografía y la esperanza de vida, sean los relacionados con el modo de vida y los derechos humanos, derechos sociales o el desarrollo de los principios democráticos, han contribuido a una demanda clara y continuada a las instituciones locales y autoridades a garantizar el derecho a una buena muerte. En consecuencia, queda claro la necesidad de modificar los marcos jurídicos vigentes. Ejemplo de ello son: la situación sufrida por la familia Tellaetxea y las 182.000 firmas presentadas en las Cortes Generales o la situación sufrida por la familia Hernández-Carrasco, a la que debido a la falta de garantías legales se le ha provocado un gran sufrimiento durante años. Por lo tanto, sòn necesarias modificaciones legales para garantizar la dignidad en la ciudadanía y para acabar con la situación de desprotección, con base de los derechos de las personas en la lucha contra el sufrimiento irreversible o contra el sufrimiento insoportable que supone llegar a situaciones de dependencia en el caso de las enfermedades progresivas incurables. Las personas enfermas deben tener derecho a acceder, respetando su voluntad, con asesoramiento médico previo, y en función de la situación, a las

sarbidea izateko, euren minaren eta sufrimenduari amaiera emateko eta horrela heriotza duina bermatzeko.

Nazioarteari begiratu ez gero, eredu juridiko desberdinak ditugu Europa bertatik hasita, izan Holanda, izan Belgika edo eta Luxenburgo non eutanasia eta suizidio lagundua arautuak dauden eta despenalizatuak. Suitzan esaterako, suizidio lagundua despenalizatua dago.

Beraz, errealitate ukaezina da, gizartearen eboluzioaren baitan egokitzen joan izan direla herrialde bakoitzaren marko juridikoak gizartearen eskaera jarraituei eta beharrei erantzuteko xedearekin, beti ere estatu demokratikoen printzipio eta eskubideak bermatuz pertsonaren borondatea eta autonomia erdigunean jarriaz, bizitza eta heriotza duinaren mesedetan eta pertsonaren osotasuna ziurtatuz.

diferentes alternativas terapéuticas, a poner fin a su dolor y sufrimiento y a garantizarse una muerte digna.

En el contexto internacional existen diversos modelos jurídicos en la misma Europa: en los Países Bajos, Bélgica o Luxemburgo la eutanasia y el suicidio asistido están regulados y despenalizados. En Suiza, por ejemplo está despenalizado el suicidio asistido.

Es, por tanto, una realidad innegable que el marco jurídico de cada país se ha ido adecuando a la evolución de la sociedad y esa adecuación ha tenido por objetivo responder a las demandas continuadas y a las necesidades de la misma. En todo caso, siempre se garantizan los principios y derechos propios de los estados democráticos, en los cuales la voluntad de la persona y la autonomía se ponen en el centro, en beneficio de la vida y de la muerte dignas y garantizado la integridad de la persona.

## TESTU ARTIKULATUA

**"Artikulu bakarra. 10/1995, azaroak 23ko Lege Organikoa, Zigor Kodearen 143.4 artikulua aldatzea.**

1.- 10/1995, azaroak 23ko Lege Organikoa, Zigor Kodearen 143.4. artikuluta horrela idatziko da:

"4.- Ez da zigortuko, beste

## TEXTO ARTICULADO

**"Artículo único. Enmienda de modificación del artículo 143.4 de la Ley Orgánica 10/1995 del Código Penal.**

1.- La nueva redacción del artículo 143.4 de la Ley Orgánica 10/1995 del Código Penal será la siguiente:

"4.-No será castigado la persona

Becerro de Bengoa 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945.004116
www.ehbildu.eus/instituzioak/gasteizko-legebiltzarra
@ehbildu_legebil

persona baten heriotza eragiteko aktiboki egintza beharrezko edo zuzenak burutu edo kooperatu duen pertsona, lehen horrek, gaixotasun sendaezin, larri edo sufrikario iraunkor eta jasateko zailak izanik, espreski, zalantzarik gabe eta modu jarraituan eskatuz gero."

que causare o cooperare activamente con actos necesarios y directos a la muerte de otra persona en el caso de que la misma sufriera una enfermedad grave e incurable o graves padecimientos permanentes y difíciles de soportar cuando medie la petición expresa, inequívoca y reiterada."

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lege hau indarrean sartzean, lege honen aurka egiten duten xedapen guztiak indargabetuko dira.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Cuando la presente ley entre en vigor quedarán derogadas todas las disposiciones que contradigan la misma.

## LEHEN AZKEN XEDAPENA

1.- Lege hau indarrean sartu eta sei hilabetetako epean, Gobernuak Gorte Nagusietara "Eutanasia Arautzeko Legea"ren Proiektua bideratuko du.

## DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA

1.- En el plazo de seis meses desde la entrada en vigor de la presente ley, el Gobierno remitirá a Cortes Generales el Proyecto de "Ley Reguladora de la Eutanasia".

## BIGARREN AZKEN XEDAPENA

1.- Gobernuak, lege hau onartu ondoren, eta "Eutanasia Arautzeko Legea" aurkeztu eta onartu bitartean, lege honen aplikazio eta garapenerako arauak onartuko ditu.

2.- Erkidego Autonomoek, lege honen eta estatuko araudiaren garapenerako arauak garatu ahalko dituzte.

## DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA

1.- El Gobierno, una vez aprobada la presente ley, y durante el período de presentación y aprobación de la Ley Reguladora de la Eutanasia, dictará normas para su aplicación y desarrollo.

2.- Las Comunidades Autónomas podrán dictar normas de desarrollo de la presente ley y la normativa estatal.

ehbildu

bai euskarari zerbitzua euskaraz

EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO

**HIRUGARREN AZKEN XEDAPENA**

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean publikatzen den hurrengo egunean sartuko da indarrean.

**DISPOSICIÓN FINAL TERCERA**

Esta ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Estado.

**Gasteizen, 2019ko maiatzaren 2an**

**Rebeka Ubera Aranzeta**
**EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea**

Becerro de Bengoa 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945.004116
www.ehbildu.eus/instituzioak/gasteizko-legebiltzarra
@ehbildu_legebil